

ORDENANTZA, ZERBITZU PUBLIKOAK ETA JARDUERAK EGITEKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA, HONAKO ARLO HAUETAN: AISIALDIKO IKASTAROAK, UDAN EUSKARAZ, MUSIKA ESKOLA, ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA ETA AURRI EGOERAN DEKLARATUTAKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK, LUDOTEKA ZERBITZUA ETA KULTUR ETXEAN EGITEN DIREN EKITALDIAK

2002ko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

I.-Xedapen orokorrak

1. artikulua. Udal honek, Nafarroako toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 100. artikuluari eta hurrengoei eta martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak aldatu zuen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 180. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz, tasak ezartzen eta eskatzen ditu eranskinetako tarifetan biltzen diren zerbitzuak emateko eta jarduerak egiteko, ordenantza honetan azaldu terminoetan, horren parte baitira tarifa haiek.

2. art. Ordenantza udalerri osoan ezarriko da.

II.-Zergagaia

3. art. Udal administrazioak zerbitzua benetan ematea edo jarduera egitea da zergagaia, bai eskatu diotelako nola partikularren egintzek eta omisioek sortu dutelako.

III.-Subjektu pasiboak

4. art. 4/1999 Foru Legeak aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 104. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, baita entitateak ere, izanen dira, zergadun diren aldetik, subjektu pasiboak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatu badituzte edo haiek ukituak izan edo haien onuradunak izaten badira, 2/1995 Foru Legeko 100.5 artikuluan aurreikusitako kasuei jarraikiz.

5. art. Tasak ordaindu behar dituzte:

a) Partikularrek eskaturik, zerbitzuak edo jarduerak egiten direnean, eskatzaileek.

b) Partikularrek eskatu gabe, baina haien jarduketek edo omisioek sortuak, zerbitzuak edo jarduerak egiten direnean

6. art. Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik datozen zerga-zorren erantzule dira tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak, hala egiten bada.

IV.-Salbuespenak, murriztapenak eta hobariak
2012ko urtarrilaren 24ko 16. NAOn argitaratua

7. art. Ordenantza honen tarifen eranskineko 1, 2, 3, eta 6. epigrafeetan ezarritako tarifak ordaintzetik salbuetsirik egonen dira diruz urri dabiltzala frogatzen dutenak; aldeztu aurretik eskari espresua egin beharko diote Udalari, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoek emandako txostena baliatuta.

V.-Zerga-oinarria

8. art. Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga-oinarria, eranskinetan bildu terminoetan.

VI.-Kuota

9. art. Tributu kuota, eranskinetan ezarritakoari jarraikiz, tarifa bat, horretarako jarritako zenbateko finko bat edo bi prozedurak batera aplikatzearen emaitza den zenbatekoa izanen da.

VII.-Sortzapena

10. art. Tasa zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da.

VIII.-Likidazioa eta sarrera

11. art. Udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingen du. Likidatutako zenbatekoa dirutan sartuko da, ordainarazpen bakoitzaren arau berezietan jarraikiz, eranskinetan bildu baitira.

IX.-Tasen kudeaketa

12. art. Ordenantza honek arautzen duen tasaren likidazio, dirubilketa eta ikuskapenarekin zerikusi duen orotan nola tributu-haustek kalifikatzean eta kasu bakoitzeko zehapenak zehaztean, 4/1999 Foru Legeak aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

TARIFEN ERANSKINA

(2017ko abenduaren 22ko 244. NAOn argitaratua)

1. Aisialdiko ikastaroak:

Urritik maiatzera bitarteko ikastaroen tarifa (lentzeria, pintura, ...): 105,00 euro, ikasleko eta ikastaroko. Zenbateko hori honela ordainduko da: 55,00 euro ikastaroaren hasieran eta beste 50,00 euro abenduaren amaieran.

Urtarrilean edo ondoko hilabeteetan matrikulatzen diren ikasleek urtarril horretatik aurrera ikastaroari dagokion tarifa ordaindu beharko dute. Ikastaroa hasi ondoren eta hurrengo urtarrila baino lehen matrikulatzen direnek ikastaro osoa ordaindu beharko dute.

Beste iraupen bat duten ikastaroen tarifa kasuan-kasuan onetsiko du Udalak.

Tarifa seinalatutako epeetan ordaintzen ez dutenak ikastarotik kanpora aterako dira.

Ikastaroaren hasieratik matrikulatu baina ikastaroan zehar alde egiten dutenek ikastaro osoa ordaindu beharko dute. Manu hau Musika Eskolan, Udan Euskaraz jardueran, ludotekan eta gaztetxoko zerbitzuan ere aplikatuko da.

Nolanahi ere, ikastaroa hasi ondoren, edozein arrazoi dela-eta hartara joaterik ez badute, ez zaizkie ordaindutako tarifak itzuliko. Manu hau Musika Eskolan, Udan Euskaraz jardueran, ludotekan eta gaztetxoko zerbitzuan ere aplikatuko da.

2. Musika Eskola:

Matrikula:

–Inskripzio eskubideak: 56 euro.

–Irakasgai bakoitzeko matrikula: 18 euro.

Hileko kuotak:

–Musika eta mugimendua: 29 euro.

–Musika Hizkuntza bakarrik: 31,5 euro.

–Musika Hizkuntza eta musika tresna: 63 euro.

–Musika tresna bakarrik/beste musika tresna bat: 33 euro.

Musika Hizkuntza irakasgaien edo musika tresnaren batean matrikulaturik ez dauden eskolako ikasleek Musika Tresnen Taldea eta/edo Abesbatza irakasgaietan sartu nahi badute, matrikula gauzatzean irakasgai batean matrikulatzeko tasa eta inskripzio eskubideak ordaindu beharko dituzte, eta dagokien hileko tasa ordaintzetik salbuetsirik geldituko dira.

Hobariak:

Eskolan bi seme-alaba baino gehiago matrikulatuta dituzten familiek %50eko hobaria izanen dute tarifa guztietan (eskubideak, matrikula eta hileko kuota), matrikulatuta dagoen bigarren seme-alabatik aurrera.

Familia larriek %50eko hobaria izanen dute familiako kide bakoitzaren matrikulan. Hobari hau ez da aplikatuko hileko kuotetan.

3. Udan Euskaraz:

a) Tarifa: 35,00 euro pertsona bakoitzeko.

b) Bi anai-arreba edo gehiago sartzen badira, 58,00 euro ordainduko dira anai-arreba guztiengatik.

4. Elurra kentzeko zerbitzua:

Zerbitzua partikularrek eskaturik egiten bada: zerbitzua egiten duen udal langilearen soldata ordainduko da eta, gainera, 29,00 euro elurra kentzeko makina erabili den ordu bakoitzeko.

5. Eraispinak:

Ondasunaren jabeak, eraistek eragin dituen kostu guztiez landa (proiektua prestatzeak, eraispena egiteak eta obra zuzendaritzak ekartzen dituzten kostuak), tasa bat ordaindu beharko du espedientearen kudeaketa administratiboaren kostuagatik; arestiko kontzeptuen kostuaren %20 izanen da.

6. Ludoteka / gaztetxoko zerbitzuak

–Inskribaturiko haur bakoitzeko: 34,00 euro/ikasturtea.

–Inskribaturiko bigarren senideagatik: 22,00 euro/ikasturtea.

–Inskribaturiko hirugarren senideagatik ez da tasarik batere ordainduko.

7. Kultur Etxean izaten diren emanaldiak(2021eko urtarrilaren 4an aldatua, NAO 1-2021ekoan argitaraturik.

SARRERAK

1.–Tarifa orokorrak.

ZUZENEKO IKUSKIZUNAK

Ikuskizun profesionala		Ikuskizun amateurra	
Familiantzat		Familiantzat	
Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera	Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera
3,00-5,00 euros	3,50-5,50 euro	2,00-3,00 euro	2,50-3,50 euro
Gazte eta helduentzat		Gazte eta helduentzat	
Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera	Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera
6,00-10,00 euro	8,00-12,00 euro	3,00-5,00 euro	4,00-5,00 euro

ZINEMA

Familiarentzat		Gazte eta helduentzat	
Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera	Aurrez erositako sarrera	Txarteldegian erositako sarrera
2,00 euro	2,50 euro	3,00 euro	3,50 euro

PROIEKZIOAK-DOKUMENTALAK, ETA BESTE

1,00 euro

Zinemaren prezioa ezin izanen da aplikatu proiektzioa DVDz edo antzeko bitartekoak erabiliz egiten denean, eta ekoiztetxeek jendaurrean erakusteko eskubideak ematean eskatzen duten moduan; halakoetan, nahitaezkoa izanen da sarrera doakoa izatea.

Gizarte-bazterketaren arriskuan daudenek kultura jardueretara joatea sustatzeko, gonbidapenak ematen ahalko dira. Gizarte zerbitzuetako arduradunek emanen diote aditzera Kultura Zerbitzuari nori eman gonbidapen horiek.

Kalitate, berezitasun edo konplexutasun artistikoagatik hala behar den kasuetan, prezioa aldatzen ahalko da, eta Alkatetzaren ebazpen baten bidez zehaztuko da.

Sarrerak doakoak izatea ezartzen ahalko da, komenigarritzat jotzen denean, inguruabar jakin batzuek edo ikuskizunaren baldintzek hala eskatzen dutenean, edo proposamenaren ezaugarriak direla eta.

2.-Tarifa bereziak.

2.1. Langabeek, ikasleek eta familia ugariak % 25eko hobaria izanen dute sarrera eta abonamenduen prezioan. Aurretiaz baino ezin izanen dituzte sarrerak eta abonamendu horiek erosi, eta udaletxean. Dena delako egoera egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.2. Abonamenduak: ezartzen ahalko dira gazte eta helduentzako ikuskizunetara joateko abonamenduak. Abonamendu horretan bi ikuskizun gutxienez sartuko dira. Abonamenduaren prezioa zehazteko, aurretiaz erositako sarreren prezioak batu, eta 1,00 euro kenduko da abonamenduan sartzen den ikuskizun bakoitzeko.

2021eko martxoaren 1ean eguneratua